

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko prozesuaren deialdiaren oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko martxoaren 13an eginiko ohiko bileran erabaki du onartzea Laudio udalerrri honetako bake epaile titularra eta ordezkoren hornidurarako hautatze prozedurako oinarriak.

Parte hartzeko eskaerak aurkeztu beharko dira herriko etxeko erregistro orokorrean, ALHAOn deialdiaren iragarkia argitaratu eta biharamuneko egunetik hasita 20 naturaleko epearen barruan, 9:30 -13:00 ordutegian, aipatutako oinarrietan eskatutako dokumentazioa eskaerari erantsita.

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen xedea da Laudioko bake-epailea, titularra eta ordezkoa hautatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzea, botere judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege organikoan eta bake epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan xedatutakoaren babesean.

Bigarrena. Izangaien betekizunak

- Espainiako nazionalitatea izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Laudioko Udalean erroldatuta egotea.
- Legeak ezarritako ezintasun-kausaren batean ez egotea:
- Eginkizun judiziala betetzeko eragozpen fisiko edo psikikoa.
- Dolozko delituagatik kondenatua, errehabilitazioa lortu ez bada.
- Dolozko delituagatik auzipetuak edo erruztatuak, absolbitzen ez badira edo largespen-autoa ematen ez bada.
- Eskubide zibilak erabat egikaritzen ez dituztenak.

Hirugarrena. Izendapen-aldia

Agintaldia iraupena 4 urtekoa izango da, izendapena ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita.

Laugarrena. Ordainsariak

Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen 2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua arautzen ditu bake-epaileek udalerriko zuzenbidezko biztanle-kopuruaren arabera jarduteko konpentsazio ekonomikorako moduluak. Laudioaren kasuan, guztira 4.656,47 euro izango dira urtean, eta hiru hilean behin ordainduko dira: martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

Artikulu horretan bertan adierazten denez, zenbateko horiek 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2ko igoera barne hartzen dute, eta sektore publikoko langileentzat onartzen den BPGaren bilakaerari lotutako ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko zaie.

Bosgarrena. Funtzioak

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 100. artikuluan eta bake epaileei buruzko 3/95 Erregelamenduaren 3. artikuluan jasotakoak. Horrela:

a) Ezagutuko dituzte, ordena zibilean, legeak zehaztuko dituen prozesuen lehen instantzia, epaia eta betearaztea mamitzea. Beteko dituzte, baita Erregistro Zibilaren funtzioak ere eta legeak esleitzen diezazkiokeen gainerakoak.

b) Ordena penalean, ezagutuko dute lehen instantzian Legeak esleituko dizkien falta prozesuak. Halaber, parte har dezakete, prebentzioko jarduera penaletan edo ordezkotzaz, legeetan adierazitako beste guztietan.

Seigarrena. Eskaerak

Hautaprobetan parte hartu nahi dutenek alkate-udalburuari zuzendutako eskabidean jaso beharko dute, honako hauek erantsita:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Aurrekari penalen ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389. artikuluetan eta bake epaileei buruzko 3/95 Erregelamenduaren 14. artikuluan aurreikusitako ezintasun- edo bateraezintasun-kausarik ez dagoela dioena.
- Curriculum-vitaea, alegatzen dituzten merezimenduak agiri bidez justifikatuta. Inola ere ez dira baloratuko eskabideak aurkezteko epean alegatu edo behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak.

Eskaerak eta horiekin batera aurkeztutako agiriak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, udalaren erregistro orokorrean, 20 egun naturaleko epean, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta Laudioko udal-errodan izena emanda dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak, dekretu bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, eta zerrenda hori Udaleko iragarki-oholean argitaratzeko aginduko du. Erreklamatzeko epea 10 egun naturalekoa izango da, egon litezkeen akatsak edo akatsak zuzendu ahal izateko.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarotakoan, eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, aurreko paragrafoan aipatutako organoak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du, eta iragarki-taulan argitaratzeko ere aginduko du. Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da erreklamaziorik ez badago.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesua egiteko, interesdunen Curriculumuma baloratuko da, baremo hauen arabera:

1. Zuzenbide lizentziatura edo gradu tituluaren jabe izatea: 6 puntu.
2. Zuzenbidez besteko lizentziatura edo gradu tituluaren jabe izatea: 2 puntu.
3. Praktika juridikoko masterra edo gradu ondokoa amaituta izatea: 2 puntu.
4. Euskararen ezagutza:
 - B2 maila izatea: 2 puntu.
 - C1 maila izatea: 4 puntu.

Ez dira bi titulazioak baloratuko (B2 eta C1), horietako bat bakarrik baizik.

Eskatzaileek gutxienez 6 puntu lortu beharko dituzte izendapen-proposamenean sartu ahal izateko. Berdinketak irizpide hauen arabera eta lehenetsun honekin ebatziko dira:

- Aurretiazko esperientzia bake-epaile gisa.
- Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez.

Balorazioa non eta noiz egingo den jendaurreko bilkuran egingo da, eta iragarki-taulan argitaratuko da 48 ordu lehenago gutxienez.

Bederatzigarrena. Balorazio batzordea

Curriculumak baloratuko dituen batzordea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria.

Ander Añibarro Maestre. Laudioko Udaleko alkate-udalburua edo udalbatzarreko berak ordezkatza lagatzen dion zinegotzia.

Mahaikideak.

Titularra: Ander Larrinaga Saiz. Suplente: Joseba Amondo Escuza.

Titularra: Lamia Arcas Nogales. Ordezkoa: Santiago Hernando Saez.

Titularra: Nerea Gonzalez García. Suplente: Jakinda Artaraz Martin.

Titularra: M^a Dolores Muriel Aroca. Suplente: Juan Jesus Merchan Meson.

Titularra: Juan Antonio Urquijo Azcarate. Ordezkoa: Susana Goiri Ibarrondo.

Titularra: M^a Jose Ikarán Salegui. Ordezkoa: Oinaze Losantos Gonzalez.

Idazkaria. Arantza Lili Salazar, Laudioko udaleko idazkari nagusia. Ordezkoa: Beatriz Carrero Vegas, Laudio Udaleko Antolakuntza Publikoa eta Zerbitzu Orokorretako zerbitziburua.

Batzordeko kideek ezin izango dute parte hartu, eta alkatetzari jakinarazi beharko diote. Izan-gaiak errefusatu egin ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

Idazkariak izan ezik, beste epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Epai-mahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketa kasuan, epai-mahaiburutzat diharduenak ebatziko du. Epai-mahaiburu titularra edo ordezkorearen absentzia kasuan, epai-mahaiko kideen artean hierarkia, antzintasun eta adinik gehieneko mahaikidea, hurrenkera horretan, ebatziko du buru jardunetan.

Epai-mahaia ezin izango eratu ez eta jardun ere, ez baldin badira bertaratu alkate-udalburua eta idazkaria edo, hala bada kasua, horien ordezkoak, eta gutxienez ere epai-mahaikideen erdia bertan dela.

Hamargarrena. Izendapen-proposamena

Hautagaien kalifikazioa amaituta, hautaketa Batzordeak puntuaziorik handiena lortu duten bi hautagaiak edukiko dituen proposamena egingo du.

Hamaikagarrena. Azken araua

Deialdia, bere oinarriak, edo oinarrietatik eta hautatze batzordearen jardunetik eratorritako egintza administratibo oro, inpugnatu ahal izango da, administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epe eta formatan.

Laudio, 2020ko ekainaren 11

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE